



Sektore honetako negoziazioak 2014ko urtarrilean apurtu zirenetik hona, administrazioarekin izandako harremana Batzorde Parekidetara mugatu da. Harreman hau azken boladan, administrazioak markatu duen erritmo motela dela eta, eskasa edo hutsala izan da, azken batzorde parekidea 2014ko abenduan izan zelarrik. Administrazioaren utzikeria honek ez gaitu etsiko, eta **steilas**-tik lanean darraigu sektorerako onak izango diren akordioak bilatu eta adostu nahian.

Proposamen hauek luzatu dizkiogu administrazioari:

LZ(RPT)a handitzea:

Ikasturte haseran Administrazioak LZa handitzeko asmoa adierazi zuen. Gogoratu behar da 2006tik eguneratu gabe daramala zerrenda honek.

Sektorearentzat ezinbestekoa dela kontuan izanik urtarrilean Steilasetik proposamen zehatz bat bidali genion Administrazioari, aurtengo lekualdatze-lehiaketa baino lehen LZko hezkuntza laguntzako espezialista, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta zeinu hizkuntzako interpreteen plaza kopurua handitu eta horrela, langileek lekualdatze-lehiaketan mugitzeko aukera gehiago izan zezaten. Guztira 132 plaza berri sartzeko eskaera egiten dugu.

Administrazioak ez du ikasturte honetan ere ezer egin, eta berriz ere beste lekualdatze-lehiaketa bat iritsi da LZa handitu gabe.

Ordezkoen araudia hobetuko duten puntuak:

- Udako puntuaketa: 165 egun baino gehiago lan egin duten langileei udako hilabeteen konputoa zenbatzea. Egun gutxiago lan egin dutenei zati proportzionala. Steilasetik udaren puntuak eta **soldata** eskatzen jarraitzen dugu, hau guztia lortzeko lehenengo urratsa baino ez da.
- -"Suspensión transitoria": familia eta lana uztartzeko neurri moduan, 3urte baino gutxiagoko seme-alaba duen langileak, ordezkapenari uko egiteko aukera izatea, zerrendetan mantentzeko eskubidea izanik eta ordezkapenak sortuko lizkiokeen puntuak eskuratuz, birbaremazioaren ondorioetarako soilik.
- Kontratupean dauden ordezkoentzako borondatezko eszedentzia hartzeko eskubidea, adibidez beste lan batera joan ahal izateko, zerrendan mantenduz.

Gauza asko daudelako hobetzeko...sektorerako lanean jarraitzen dugu!!!

www.steilas.eus

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@steilas.eus	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@steilas.eus	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus